

Iparrorratz eta bidelagun

Iritsiko dira une aproposagoak Joxe Azurmendiren lanak sakonago eta zehatzago aztertzeko, eta horretarako ez da JAKINEN beste zenbaki berezi bat ere nahikoa izango; baina asko daukagu bestela gaur eta hemen esateko: haren galera, funtsean, gure galera da. Aspaldiko erromatarren garaitik, ezaguna denez, ohikoa da *potestas* eta *auctoritas* kontzeptuak bereiztea: lehenengoa indarraren arrazoian oinarritutako botere politikoa litzateke; eta bigarrena, berriz, arrazoimenaren indarretik eratorritako botere morala. Azken horrekin lotuta ulertu behar dugu Azurmendi; izan ere, bere helburua ez da inoiz izan eztabaidan irabaztea, baizik eta elkarrizketan konbentzitzea. Horregatik begiratu izan dio beti askoz gutxiago itxurari edo titularrari eta askoz gehiago edukiari edo mamiai. Ez da harritzekoa, hortaz, berak halako begirune soziala lortu ahal izatea –seguruenik bilatu ez duelako–, eta egiaz hortik ulertzen da ere haren obraren gaurkotasuna. Gutako askoren-tzat, esan dezagun garbi, benetako iparrorratz eta bidelagun izan da.

Agerikoa da Euskal Herria izan dela Azurmendiren jomuga: gurea herri «kaskarra» da, zioen berak, baina hori da «gurea». Horregatik dagokigu guri hura zaintzea, ez baita inor kanpotik etorriko gure lana egitera. Alegia: errespetua, eskatu baino, irabazi egiten da. Ideia horrekin loturiko haren hitzen artean, bestela, interes berezia dute honako hauek ere: «Herri bezala txiki izaten ikasi behar dugu». Gustatu edo ez, egiaz, dena ez dago gure esku. Baina horrek ez du esan nahi gure burua herri gisa garatu behar ez dugunik. Eta, horrela –barkatu hitz-tarte pertsonal hau–, gogora datorkit aitak –zeinak, amak bezala, Azurmendi ere ezagutu zuen– gustuko zuela esaera zahar hau: «*Más vale ser cabeza de ratón que cola de león*». Ez dago ezer handiagorik nor bere buruaren jabe izatea baino. Horregatik da ezinbestekoa, zailtasunak zailtasun, guk euskaldun bezala eta herri bezala gure mundu txiki propioa eraikitzea. Gurea ez bada besteek sortutakoaren kopia baino,

berori onena izanda ere, bestearen originala nagusituko zaigu berandu baino lehen. Identitatea, maila pertsonalean zein kolektiboan, jaso baino, landu egiten dugu; hortik, zera gogorarazten digu Azurmendik: ezberdin izatea ez da gehiago izatea; eta ezberdin garatu nahi izatea ez da bestearen kontra egotea, baizik eta norberaren alde egitea. Baina, horretan guztian ere, bera ez da inozoa: amesten duen Euskal Herria ez da herri ideal bat edo halako Arkadia zoriontsu bat. Buruan duena herri normal bat da, ez gehiago eta ez gutxiago, bestelako herriek bezala bere bertuteak eta bere bizioak dituen.

Konplexuz beteriko Euskal Herri honetan, non askotan lotsa ere ematen digun nazio kontuak aipatzeak, Azurmendi antidoto moduko bat izan da, erreferente bizigarri bat; izan ere, bere maisutasunarekin gure burua gora altxatzen eta goian mantentzen erakutsi digu. Harenak irakurrita, ahots moduko bat entzuten dugu: ez gara hain arraroak, alegia, normala da gu ere gure nortasun kolektiboaz ardurtzea. Horixe da, nolabait, haren etengabeko ikerketa konparatuek eta haren askotariko hausnarketa sakonek aldiro erakusten digutena. Ez dugu inor jainkotu behar, jakina, eta Azurmendik ere ez luke horrelakorik nahi; baina arruntagoak garenok behar ditugu bera bezalako jainkotxoak, hots, momentu ilunetan iparra non dagoen erakusten digutenak eta aldapa zailetan laguntza oparitzen digutenak. Isilik joan zaigu, agian isilegi ere, baina horrelakoa zen: ez zituen bozgorailuak maite, eta ez zuen bere burua *like* batengatik salduko. Zorionez, hortxe dauzkagu haren idatziak, bai, eta horiek irakurritz eta landuz aukera dugu berarekin pentsatzen jarraitzeko.